



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

BGPk gaur aldatuko du Barik txartel guztien iraungitze-epea, 4tik 7 urtera

- **Aurrerantzean erosten diren txartel berriek 7 urteko iraungitze-epea izango dute.**
- **Dagoeneko luza daiteke erabiltzen ari diren txartelen baliozkotasun-epea, erabiltzaileentzako kosturik gabe. Aldaketa hori Metro Bilbaoko geltokietan egin daiteke, txartelak saltzeko eta kargatzeko makina automatikoetan.**

Bilbo, 2015eko uztailaren 13a.

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) erabaki du iraungitze-epea 3 urtez luzatzea Barik txartel guztiei, bai orain zirkulazioan daudenei bai gaur bertan eta aurrerantzean erosten direnei.

BGPk egindako azterketa teknikoetan egiaztatu denez, Barik txartelak daukan txip integratua, aitzindaria eta berritzailea inguruneko beste operadore batzuek erabiltzen dutenaren aldean, lau urte igaro eta gero ezin hobeto funtzionatzen ari da. Horrek erabilera-epea luzatzeko erabakia hartzeko aukera eman dio erakundeari.

Orain erabiltzen ari diren txartelen iraungitze-epea luzatzeko, erabiltzaileek nahikoa izango dute Metro Bilbaoko edozein geltokira joan eta txartelak saldu eta kargatzeko makina automatiko batean epea luzatzea. Txartela erabiltzeko azken eguna modu automatikoan aldatuko da, erabiltzailearentzako kosturik gabe. Nahikoa da txartela makinan sartzea. Egin beharreko tramite hori edonoiz egin daiteke, gaurtik hasita; baina betiere Barik txartela bere oraingo iraungitze-datara heldu baino lehen egin behar da.

Horrela, Barik txartel berri guztiek 7 urteko baliozkotasun epea izango dute, eta orain erabiltzen ari direnen egungo epea 3 urtez luzatu ahal izango da dohainik. Hau da, egungo 4 urteko epetik 7 urteko epera igaroko da.

Aldaketa horren ondorioz, lehenengo txartelak, datorren irailetik aurrera iraungitzekoak zirenak, baliozkoak izango dira 2018ko irailera arte, behin erabiltzaileak bere Barik txartela eguneratu eta gero. Tramite erraz hori gaurtik aurrera –eta txartela iraungi aurretik– egin ahal izango da Metro Bilbaoko edozein geltokitan. Txartelak saldu eta kargatzeko makinan Barik txartela sartuta, besterik gabe, sistemak garraio titulu horren iraungitze-epea luzatuko du, erabiltzaileentzako kostu erantsirik gabe.



ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Garraio Partzuergoak, pixkanaka, Barik sarearen beste puntu batzuk egokituko ditu bezeroek Barik txartelaren iraungitze-epea luza dezaten.

Txartela kargatzeko edozein puntutan (Euskotrenen, tranbiaren eta Renferen makinetan; Bilbobusen kabinetan, Bizkaibusen, kutxazainetan...) edo pantailetan eta erosketaren ordainagirietan ikus daiteke zein den txartelaren iraungitze-data.

Bestalde, BGPren webgunean (www.ctb.eus) ere ikus daiteke edozein Barik txartelen iraungitze-data. Horretarako txartelaren atzealdean dagoen zenbakia idatzi besterik ez da egin behar.